

Egoitza zentroa bazterkeria eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzat

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonentzako gizarte-inklusioko esku-hartze programak dituen bizilekua eskaintzea.
[Zentroen direktorioa](#) kontsultatu (BEHAGI)

Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia
- Gizarte Inklusioa eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzua

Harremana

Interesatua errolatuta dagoen udalerriko oinarritzko gizarte zerbitzuak
[Gipuzkoako lurralde historikoko udaletxeak](#).

Nori zuzenduta

Marjinazio eta edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak eta familiak, gizarteratze prozesu espezializatua hasiera emateko jarrera egokia, jarraitzeko gaitasuna eta prozesu horri eta profesionalen esku-hartzea onartzen dutenak.

Baldintzak

- 18 eta 64 urte bitartekoa izatea.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrri bateko errolda, eskaera baino 6 hilabete lehenagokoa eta legezko bizilekua eta benetakoa izatea bertan. Salbuespen gisa, eskaera data baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik Gipuzkoako gizartean errolda daudela frogatzen dutenak legezko bizilekuaren eskakizuna betetzetik salbuetsita geratu ahal izango dira.
- Gizarte bazterketa maila jakin bat erakustea, baliabidearen beharra zuritzearen.
- Profesionalek gidatutako esku hartze sozialak eta gizarte eta hezkuntza arlokoak onartzeko gai izatea; eta gizarteratzeko prozesua egin ahal izateko baliabide pertsonalak izatea.
- Osasun egoerari dagokionez, osasun erakundeetan asistentzia etengabe edo ziklikoaren beharrik ez izatea, eta zentroetan osasun publikoko neurririk hartu behar ez izatea.
- Programaren helburua larriki asalda dezakeen portaera nahasmendurik eta/edo jarrerarik ez izatea

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko agiriak

» NA edo nortasuna egiaztatzeko agiria » Errolatze ziurtagiria

- NA edo identifikatzeko agiria
- familia liburua gizarte bazterketa egoeran dauden familientzako egoitzen kasuan
- Errolatze-agiria
- Udalaren gizarte txostena edo bideratu duen entitatearen txostena
- Osasun arazoaren kasuan: mediku txostenak

Eskaera moduak

» Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udaletako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak.
[Gipuzkoako lurralde historikoko udaletxeak](#).

EBAZPENA

Ebazteko gehieneko epea

Erabakitze gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da Gizarte Politikako Departamentuan eskaera jasotzen denetik.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

- » Ohiko postaz
- » Jakinarazpen elektronikoa

ARAUDIA

[5/2014 Foru Dekretua](#), martxoaren 4koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapeko bigarren mailako arretako gizartera-tzeko baliabideak eskura-tzeko prozedura arau-tze-koa (52 zk. GAO, 2014ko martxoaren 18koa).

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

Beste dokumentu batzuk eskatu daitezke bere egoeraren diagnostikoa lantzeko.

Informazio gehigarria